

Neke-pozak, handitzean



Ibrahim jauna eta Koranaren loreak

Jatorrizko izenburua: *Monsieur Ibrahim et les fleurs du Coran*

Egilea: Eric Emmanuel Schmitt

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Erein

INMA ERREA

Gaien nahasketa benetan bitxia, Bruselan bizi den Eric Emmanuel Schmitt idazle frantziarrak istorio honetan proposatzen diguna. Hirurogeiko hamarkadan Parisen nerabetasunaren atarira iristen ari dela, Moises mutiko juduak helduen munduko hainbat konturi egin beharko dio aurre, tupustean, samurretik gutxi duten afera zenbaiti alegia, hala nola familiaren baitako gorabeherei eta abandonuari edota erlijio- zein arraza-arazo beti konprenigaitzei, bai eta adin horretan bereziki erakargarri diren amodioaren eta sexuaren inguruko sekretuei ere.

“Hamaika urtetan, txerritxo aputru, eta putetara joan nintzen”. Hauxe da istorioari hasiera ematen dion esaldia, eta Patxi Zubizarreta istorio honen itzultzaileak liburuaren *Hitzatzean* ongi dioen bezala, horrela hasten den kontakizuna gordina eta errealista baino ezin da izan.

Eta hala da, zinez, nahiz istorioan barna abiatu ahala konturatzen garen kontakizunaren errealismoak eta gordintasunak beste ustekabe batzuk dituztela gorderik haien baitan, sorpresa harrigarri eta atseginagoak.

Gezurra badirudi ere, txikitan amak eta nerabegarora iristean aitzak abandonatutako Moises gaztearen istorioak baikortasunari egiten dio omena, jendearen bizirauteko ahalmenari. Gazteak Ibrahim auzoko arabiar dendariaren gidaritza eskuratuko du, baina haren irakasbideak adina gazteak berezko ezaugarri duen burujabe izateko adorea makulu harturik heldutasunera daraman bideari ekinen dio. Norbere bidea egitea, patua norbere eskuetan hartzea, eta bidaiatzea bera, bizitzaren metafora gisara, dira istorioaren ardatzetako bi, baina horiekin batera beste hainbat gai jorratzen ditu egileak, kasu baterako, umore onaren balioa, kultura anitzetan hain funtsezko den gidari helduaren irudia edota pertsona maitatuengandik bereizi beharra. Nerabeei zuzendua den liburu honetan ez dira falta ukitu filosofikoak, eta horietan erlijiozko printzipioen arrastoak ere ageri dira, baina oso modu lauso eta irekian, batere ortodoxiarik gabe, eta beti ironia kontrapuntu dutela.

Biziki deigarriak dira, bestalde, egileak idaztean erakutsitako estiloaren freskotasuna eta erabilitako adierazpenen originaltasuna. Umore tantek kontakizuna ziprizzintzen dute, esaldirik arruntena distiraraziz. Eta hori pasarte tristenetan eskertzen da bereziki. Izan ere, egileak halako erritmo berezi bat ezartzea lortzen du, halako oreka bat, kontatutako jazoeren krudeltasunaren eta adierazpide umoretsuen artean.

Itzultzaileak ere, gazteei zuzendutako ipuin ugari argitaraturik dituen Patxi Zubizarreta idazleak, norabide berean egin du, eta euskara fresko eta erregistro ugarikoa erabili du, liburuak hartzaile dituen gazteendako aproposa. Hitzaurrea beharrean, *hitzatzea* paratu dio Zubizarretak ipuinari, eta erabaki egokia izan da hori, irakurleak, lehenik kontakizunaren lilurak harrapatuta, segituan jo baitezake Eric Emmanuel Schmitt idazlearen eta horren obren inguruko zertzeladen berri jakitera, lilurak piztutako jakin-mina asetze aldera.

